

Mende laurden borobila ospatu nahi du Altzako Historia Mintegiak

Bi txango eta historia berreskuratze lanetan ari diren beste elkarte batzuekin topaketa prestatzen ari dira

Xabier Etxabe

Altzako Historia Mintegiak datoren urteko egutegia kaleratu du. Egunotan erakunde eta elkarteek banatzen dituztenen pare, hau ere argazki ederrez hornituta dago. Altzako Historia Mintegikoak, baina, berezitasun nagusi bat du, datorren urtean zilarrezko ezteiak beteko dituelako.

2011k, honenbestez, egun berezi ugari izango ditu Altzako Historia Mintegiarentzat, guztiak ere gorritz borobiltzeko.

Urte berrian murgildu ahala ekitaldiak loratuz joango badira ere, jarduera mordoa dute jada aurreikusita. Udaberrian, esaterako, bi txango antolatuko dituzte. Bata, Erronkariko Burgi herrira. Egurra eramateko ontziak baliatuz, almadiazainek egiten zuten lana oso ezaguna da bertan. Maiatzaren 28an, berriz, Felix Rodriguez de la Fuenteren jaioterrira joko dute, Poza de la Sal herrira (Burgos).

Ekainean argitalpen berri bat kaleratzeko asmoa dute. Aurretik, aldiz, naturari eskainitako



Tresna zaharrak ezagutzera emateko umeekin egindako ekimenetako bat. MAIDER AZURMENDI

leho berri bat zabaltzekotan direla argitu du Maribel Manzano Altzako Historia Mintegiko ki-deak. *Altzanatura* izenez, Altxa eta bere inguruak duen landare eta animalia aberastasuna eza-gutzeko aukera eskainiko dute.

Uda atseden hartu eta indarberritzeko garaia izango da.

Kultur Astea, udazkenean

Udazkena, aldiz, berezia izango da Altzako Historia Mintegia-

rentzat, 25. urteurrena ospatzeko jarduera ugari egitea dutelako buruan. Ganbara bilduman jasotako tresnekin landutako erakusketaz gain, azarorako topaketa berezi bat egitekotan dira. Altxako Historia Mintegiaren bide beretik historia berreskuratzen lanean ari diren beste elkarte batzuekin bat egin eta egiten duten lanaren berri izateko ekimena prestatzen ari dira.

Kultur Aste berezia antolatu nahi dute, halaber. Antolatuko dituzten jardueren artean, erakusketeta berezi bat egongo da, *Lekukoak* ikus-entzunezko sorta ezagutzera emango dutelako. *Lekukoak* egitasmoaren bidez, Altxako aiton-amonon testigantzak bildu dituzte.

Horretaz gain, *Hautsak kenduz* bildumaren beste argitalpen bat kaleratuko dute.

● xetxabe@hitza.info